AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5164

1407/2012 EBAZPENA, urriaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 573/2012 Ebazpena aldatzen duena (ebazpen horren bidez izendatu egiten dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan lantokia izango duten hainbat kategoria profesionaletan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-prozesuetako kalifikazio-epaimahaiak).

Indarrean dagoen legediak emandako ahalmenez baliaturik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 573/2012 Ebazpena aldatzea, Gizarte Langileen kategoriako kalifikazio-epaimahaiari dagokionez. Honako aldaketa hauek onartzen dira:

a) Juana Fernández Refoyo andrea lehendakari titular izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) María José Pujana Uriarte andrea lehendakari titular izendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 57.1 artikulua betez,

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.